

Elkartasuna horiz jantzi da

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak giza katea egin du Plentziako eta Gorlizko hondartzetan • «Giza eskubideak errespetatuko dituzten migrazio eta harrera politikak» ezartzeko eskatu diete erakundeei

Gotzon Hermosilla

OEE Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak deituta, giza katea egin dute Plentziako eta Gorlizko hondartzetan (Bizkaia), jaioterria uztera behartuak izan ostean bizitza arriskuan jartzen duten milaka pertsonak gogorarazteko, eta migratzaile horientzat harrera politika duinagoak eskatzeko. Marea horia gisa izendatu dute mobilizazioa, eta dozenaka lagunek hartu dute parte ekitaldian.

Mobilizazioa eguerdian hasi zen. OEEren zapi eta ikur horiak zeramatzaten manifestariak giza katea egin zuten atzo hondartzetatik Plentziako porturaino, eta Arkoteko arrapalatik plazara jo zuten. Han ekitaldi xume bat egin zuten hildako migratzaileak gogorarazteko, biolinaren doinuek lagunduta. Ohorezko aurrekua dantzatu zuten haien omenez, eta loreak jaurtiki zituzten itsasadrera.

Antolatzaileek azaldu dutenez, bi helburu zituzten mobilizazioarekin: alde batetik, «mundu osoan milioika pertsonak bizi duten errealitate gogorra agerian uztea»; eta, bestetik, gobernu eta erakundeei «giza eskubideak errespetatuko dituzten migrazio eta harrera politikak» har ditzatela eskatzea.

OEEren arabera, behartutako



Marea Horian parte hartutakoak, loreak itsasora jaurtitzen hildako migratzaileen omenez. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

migrazioak «prozesu mingarriak» dira, migratzaileak jaioterria uztera behartuak izaten dira herrialde horiek «ekonomia, gizarte eta ingurumen krisi handiak» pairatzen dituztelako. Horren erantzule dira, nagusiki, «espoliatze politikak» aplikatzen dituzten «nazioz gaindiko

enpresa handiak eta herrialde aberatsetako gobernuak, haien gobernuen onespenean adostasunarekin».

«Euskal Herri abegikorra»

OEEk «Euskal Herri abegikorra» aldarrikatu du, eskubideduna, desberdintasuna aintzat hartuko

duena eta «gero eta heterogeneoagoak diren gure gizarteak osatzen dituzten jatorri askotako pertsonekin eraikia».

OEEk gogorarazi du irailaren 30ean eta urriaren 1ean protesta ekitaldia egingo dela Bruselan, Europako Batasuna «heriotzak eragiten dituzten migrazio politi-

ken erantzule gisa» salatzeke, eta Europako instituzioei eskatzeko migratzaileen giza eskubideak babes ditzatela: «Pozik ikusi dugu iheslari ukrainiarrei emandako harrera aparta, baina uste dugu garaia dela neurri hori bera aplikatzeko migratzaile eta errefuxiatu guztiei».

Elizan Poliziak migratzaileak atxiki eta gero, protesta Urruñan

Oihana Teyseyre Koskarat
Urruñan

Frantziako Poliziak Urruñako (Lapurdi) San Bixintxo elizan aterpetuak ziren hamabi migratzaile atxiki zituen herenegun. Operazioa salatzeke elkarretartzea egin zuten atzo hirurehun bat herritarrek, Etorkinekin, Diakite eta Bidasoa Etorkinekin elkarrekin osatzen duten federazioak antolatuta. Sebastien Irazoki Bidasoa Etorkinekin elkarrekin kideak herenegun Frantziako Polizia ikusi zuen bi etorkin atxilo-

tzen, eliza atarian. Salatu du poliziek «zigorgabetasunez jokatzeko» dutela, eta geroz eta gehiago direla jarrera arrazistak: «Gure lurraldean ez ditugu horrelako ekintzak onartzen!».

Mikel Epaltza apaizak salatu zuen, halaber, «Afrikako anai-arrebek» etengabe jasaten dituztela oztopoak. Frantziako Polizia Urruñako elizara sartzeari begira, honela hitz egin zuen: «Ezin daiteke eliza batera armekin sartu». Esplikatu zuen Gipuzkoa eta Lapurdi arteko muga igaro berri duten etorkinen abaro izaten direla

askotan. Urruñako Udalak gogor gaitzetsi ditu atxiloketak. Filipe Aramendi herriko auzapezak Sud Ouest egunkariari esan dio ikuspuntu juridikotik itzal handiak ikusten dituela, eta «etikoki» ere Poliziak jauzi bat eman duela «to ki sakratu batean sartuta».

Amaia Fontan Etorkinekin elkarrekin bozeramaileak azaldu zuen, herenegungoaren harira, Eric Spitz Pirinio Atlantikoetako prefetak deitu zuela. Azaldu zion hark ez ziela poliziei elizan sartzeko agindurik eman, eta ez dela berriaz halakorik gertatuko.



Hirurehun lagun bildu ziren atzo Urruñan, etorkinen sostenguz. G. FAUVEAU